

INMA ARRIETA: “Helburua ahalik eta euskarazko lan gehien braillez egotea da”

Ibai Maruri Bilbo

Hiltzen naizenean egonen da /nire lauzaren gainean eskribu hau: / Hemen datza Gabriel Aresti Segurola. Goian bego. / Perez y Lopez. Marmolistas. Derio. / Bizkaiko Bibliotekan ere egonen da / (deskomekatzen ezpanaute), / liburu bat (behar-bada, ezta seguru), / inork letuko eztuena, / nire izenarekin. Hitz horiexekin egin zuen Gabriel Arestik bera hildakoan gertatuko zenaren aurreikuspena, Nire izena poeman. Zorionez, ez zuen asmatu.

Inma Arrietari esker, Bizkaiko liburutegian ez ezik, ikusmen urritasuna duten hainbat euskaldunen eskuetan ere izango da haren lana. Euskal Filologia ikasi zuen Arrietak, ikusmen urritasuna du, eta ONCEko euskarazko liburuaren kudeatzailea da.

Gabriel Aresti jaio zenetik 75 urte bete dira. Angel Zelaietak bildu du haren bizitza biografia lan batean, eta zuk brailleratu duzu. Biografo, itzultzaile... zer zaitugu?

Ni ez naiz ez biografo, ez itzultzaile, ez ezer. Azken baten braillea alfabeto bat da. Nik egin dudana bakarra liburu hori braillez egon ahal izatea da. Hitzez hitz eta letraz letra beste kode batera pasatu behar da, eta hori makina batek egiten du. Eusko Jaurlaritzarekin dugun akordioari esker, argitaletxeetatik liburuak Word edo Pdf formatuan bidaltzen dizkigute. Gutxi gorabehera, euskarazko 200 liburu inguru dauzkagu brailleratuta. Ez ditut denak irakurri. Nik hautaketa lana eta bideratze lana egiten dut.

Euskal literaturak sortzaile asko ditu. Baina zuk braille hizkuntzan jartzeko Aresti aukeratu duzu.

Lehentasuna dute eskatzen dizkiguten liburuek. Gaurkotasuna duten liburuak ere kontuan hartzen ditugu; atera berri direnak, kasu. Itsuek ikusten duten lagunak izaten dituzte, eta haiek komentatzen dute ez dakit zein idazleren azken lana irakurri dutela. Berak ere eskubide hori badu. Era berean, klasikoak berreskuratzea beharrezkoa dela pentsatzen dugu. Euskal kulturen esanguratsuak diren lanak eskuragarri egotea garrantzitsua da. Eta, nire ustez, Gabriel Aresti horietako bat da.

Brailleratuko duzun hurrengo lana Harri eta Herri izango da.

Aresti euskal kulturen pertsona garrantzitsua da, eta haren lanak braillez egon behar duela pentsatzen dugu. Gure helburua ahalik eta euskarazko liburu gehien braillez eskuragarri egotea da. Beharbada ez ditugu denak argitaratuta edukiko, baina gutxienez beharra sortzen denean egin ahal izateko aukera egotea: testua lortu, braillera itzuli eta inprimatu.

Poesia narratiba baino gutxiago irakurtzen den generoa izan arren, zuek horren aldeko apustua ere egin duzue.

Alde horretatik ez dugu irizpide finkorik. Egia da, hala ere, narratibako lan gehiago itzuli ditugula braillera. Kasu honetan, Arestiren biografia irakurri duen batentzat interesgarria da idazle horren lana irakurtzeko aukera egotea. Dena dela, hau ez da argitaletxe bat eta gure helburua ez da arrakastatsua izango den lan bat argitaratzea. Osoitsu gutxi daude, horietatik gutxiak dakite braillez irakurtzen, eta horien artetik euskaraz alfabetatuak are gutxiago dira. Hartara, posible da gutxiengo horrek irakurri nahi duena brailleratzea. Tartean poesiazaleak daude.

Zer eskari jasotzen duzue?

Oso eskari gutxi daukagu. Bakoitzak bere gustuen erabera eskatzen du. Euskaltegietatik, bestalde, ohiko lanak eskatzen dizkigute, edo eskola umeek. Euskara klaseetan irakurtzen diren liburuak.

Euskarazko liburuak braillez aurkitzeko bide bakarra ONCE da, beraz?

Bai. Hego Euskal Herriko edozein egoitzatan jaso ditzakete. Edo, bestela, eskatu. Guk maileguan uzten dizkiegu.

Ikasliburuak edota hiztegiak behar dituen ikasle batek ere ba al du aukera hori?

Araba, Bizkai eta Gipuzkoan Jaurilaritzak du itsuen hezkuntza alorreko eskumena. Hezkuntza Sailaren menpeko erakunde bat, Itsuen Baliabidetegia, arduratzen da itsutasuna duen ikaslearen ezintasunak konpontzeko baliabideak jartzeaz. Beraz, Jaurilaritza arduratzen da ikasliburuak eta holakoak brailleratzeaz.

Holako liburuak handiak dira, askotan bat baino gehiago, eta braillez irakurtzea zaila da.

Nik neuk ere kostata irakurtzen dut. Eskuekin ukituta ez daukagu testuaren ikuspegi orokorrik. Non utzi dugun aurkitzea ere askoz gehiago kostatzen da. Gaitasun gabezia batez ari gara. Horren ordezkimena erabiltzen dugu, baina ez da gauza bera, inondik inora. Beste aukera bat liburu hiztunak dira. Askoz errazagoa da, baina ohitu egin behar da. Arreta erraz galtzen da. Irakurle bat eta ahots bat daude. Askotan ahots hori ez zaigu gustatzen, ezta nola irakurtzen duen ere. Horregatik, braillez irakurtzen dakitenek nahiago dute braillea. Kasu horretan liburua eta irakurlea baino ez daude, ezelango bitartekaririk gabe.